



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko martxoaren 13a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzekoa. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (9. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena. Irakurketa bakarrean tramitatzea (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzekoa

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari buruzko ponentziaren txostenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Ponentziaren txosten hori, 2003ko martxoaren 4ko 22. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zuzenketa hauek eta boto partikular hauek defendatzen ahalko dira:

– 4, 5, 6 eta 7. artikuluei Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkezturiko boto partikularrak.

– 2, 3, 5, 9, 12, 15, 16, 18, 23 eta 26. zuzenketak, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztuak.

– 6. zuzenketa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– 1, 14, 19, 22 eta 28. zuzenketak Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztuak..

Iruñean, 2003ko martxoaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO
MANTENDUTAKO ZUZENKETAK**

2. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua ordeztzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“1. artikulua. Lege honen helburua.

1. Foru lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskainitako goi mailako irakaskuntzan euskararen erabilera arautzea.

2. Ikasle orok eskubidea dauka unibertsitate-ikasketak bai euskaraz bai gaztelaniaz egiteko.

3. Horretarako, Parlamentuak eta Foru Gobernuak behar diren neurriak hartuko dituzte Nafarroako unibertsitate-sisteman elebitasuna pixkanaka orokortzeko. Zehazki, eta hezkuntza euskaraz izateko eskubidea eraginkor egiteko xedez, bi erakundeek, unibertsitateekin lankidetzan, irakasleak pixkanaka euskalduntzeko bitartekoak ezarriko dituzte.”

Zioak: Lege honen izpirituari gehiago egokitzten zaion testu bat proposatzea.

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Araudi hori aipatu beharrik ez dago.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua ordezteko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoak Foru Komunitateko bi hizkuntzetan emanen ditu izaera ofizialeko unibertsitate-tituluak eskuratzeko ikasketak-planetan agertzen diren irakasgai guztiak.”

Zioak: Irakaskuntza Foru Komunitateko bi hizkuntzetan egiten dela bermatzea.

9. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua ordezteko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoak berariazko programak eginen ditu euskararen erabilera unibertsitate irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazio- nahiz zerbitzu-jardueran normalizatzeko, berdintasun- eta kalitate-baldintzetan.”

Zioak: Euskararen erabilerearen normalizazioa errazteko eta bermatzeko programak egitea beharrezkoa da, irakaskuntzaren, ikerketaren eta administrazio- nahiz zerbitzu-jardueraren esparruan.

12. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua ordezteko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“Nafarroako Unibertsitate Publikoak gaztelaniaz irakatsi beharreko ikasketak-planetan euskaraz irakatsiko diren hautapen libreko ikasgaiak sartuko ditu”.

Zioak: Ikasketarik gehienak gaztelaniaz egin arren baten bat euskaraz ikasi nahi duten ikasleei hautapen libreko ikasgaiak euskaraz ikasteko aukera eskaintzea.

15. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

8 eta 9. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Beharrezkoa da unibertsitate publikoko zerbitzu administratiboetan eta irakaskuntzaz bestekoetan progresiboki euskara ezartzea, eta aipatu artikuluek ez dute hori egiten.

16. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

8. artikulua ordezteko zuzenketa. Honako testu hau proposatzen da:

“8. artikulua.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta existitzen diren goi-mailako irakaskuntzako eta unibertsitate irakaskuntzako ikastetxe publikoek bermatuko dute administrazio-zerbitzuak eta irakaskuntzaz bestekoak Nafarroako bi hizkuntzetan ematen direla.

2. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta goi-mailako irakaskuntzako eta unibertsitate irakaskuntzako ikastetxe publikoen korporazio- eta erakunde-irudiak eta herritarrari erantzuteko zerbitzuek betiere Nafarroako Foru Komunitatearen izaera elebiduna errespetatuko dute.”

Zioak: Nafarroako Unibertsitate Publikoak bi hizkuntzetan eman behar ditu bere administrazio-zerbitzuak eta irakaskuntzaz bestekoak, eta herritarrei erantzuteko ere bi hizkuntzak erabiliko ditu, herritarren artean bereizkeriarik ez sortzeko.

18. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin koherenteak izatearren.

23. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria ordeztuko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Aurreko artikuluetan jasotako arauak existitzen diren goi-mailako hezkuntzako eta unibertsitate-hezkuntzako ikastetxe publikoei ere aplikatuko zaizkie”.

Zioak: Legeko artikuluen aplikazioa aipaturiko ikastetxei hedatzeko beharrezana.

26. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
 ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpena ordeztuko zuzenketa. Hona testu berria:

«Indarreko ordenamendu juridikoak gure hizkuntza-aberastasuna ezagutzen du, eta euskara Nafarroako hizkuntzetako bat dela aitortzen du.

Halaber, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak, zeinak euskararen erabilera arautzen baitu, euskararen arauketa- eta eskakizun-mailak jorratzen ditu, baina betiere izaera ofiziala aitortzen dio euskarari.

Horrela, 18/1986 Foru Legeak bere funtsezko helburuen artean sartzan du nafar herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hizkuntza horren garapena Foru Komunitatean babestea, haren erabilera eta irakaskuntza bermatuz. Hala ere, aipaturiko foru legeak ez dio heltzen euskara unibertsitate-mailan irakatsi eta erabiltzeari, eta xede hori betetzera dator lege hau.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa, zeina apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legearen bitartez eratu baitzen, Nafarroako gizartearen osotasunean garatzeko beharrezana betetzera dator, Foru Komunitate guztiaren interesak asetzeko asmo logikoaz. Beraz, begi-bistakoa da unibertsitate horrek Nafarroako unibertsitate-ikasleen beharrezanean erantzun beharko diela, berdin delarik ikasle horiek Nafarroako zein udalerritakoak diren.

Ikuspegi horretatik, eta ez-diskriminatzearen printzipioarekin bat etorritik, 18/1986 Foru Legeko 3. artikuluko lehen lerroak honako hau xeda-

tzen du: “Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntzagaratik hiritarrak gutxietsiak izan ez daitezen”.

Horregatik, Foru Komunitateko hizkuntzen izaera ofiziala gogoan izanik, eta diskriminaziozko tratua saihestearren, Nafarroako Unibertsitate Publikoak babestu egin behar du ikasleek bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan euren unibertsitate-ikasketak egiteko daukaten eskubidea.”

Zioak: Proposatutako testua hobetzea.

6. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
 DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua ordeztuko zuzenketa.

4. artikuluari testu berria ematea proposatzen dugu. Hona:

4. artikulua.

1. Foru lege baten bitartez eman beharko da baimena euskaraz irakasteko Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketak-planetan dauden edo egonen diren irakasgaiak, lurralde nazional osoan balioa izanen duten unibertsitate-titulu ofizialak lortzekoak.

2. Halaber, kontuan harturik gizartearen beharrezana, eskari erreala eta irakasle kualifikatuen jarrera, eta borondatezotasun printzipioaren arabera, aipatu ikasgaietako batzuk euskaraz ikaste baimena ahal izanen da, % 20ko gehieneko mugarekin.

3. Bi kasu horietan, Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak aurretiaz aldeko proposamena egin beharko du.

Zioak: Talde sozialistak uste du irizpeneko 4. artikuluan aurreikusitako arautzea mantentzeaz gainera –haren bitartez Unibertsitatean karrera elebidunak ezartzeko foru lege bat beharko da–, aurreikusi egin behar dugula enborreko ikasgaietako batzuk euskaraz irakasteko aukera, gaur egun ere badagoena, gizartearen beharrezana duenean eta eskari erreala dagoela jotzen den karretan.

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

I. titulua aldatzeko zuzenketa. Izenburua eta bertako hiru artikulua ordeztea du xede. Honako testu hau izanen luke:

“I. titulua: Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaskuntza

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak bai gaztelaniaz bai euskaraz emanen ditu izaera ofiziala eta Estatuko lurralde osorako balioa duten unibertsitate tituluak lortzeko ikasketak planetan orain diren eta gero batean izaten diren irakasgai guztiak (Unibertsitateen Kontseiluak edo Unibertsitatea Koordinatzeko Kontseiluak homologatutako tituluak) eta hautaketa libreko irakasgai guztiak, baldin eta behar adinako eskaria badago, unibertsitateak berak ezarritako gutxieneko ehunekoei jarraituz, zeinek antzekoak izan beharko baitute bai gaztelaniaz bai euskaraz eman beharreko irakasgaietarako.

2. artikulua. Euskararen garapena delarik helburu, Nafarroako Unibertsitate Publikoak curriculum lerroak edo bestelako ikasketak jarriko ditu hizkuntza horretan, titulu berekiak lortze aldera. Halaber, hizkuntza horretan zientzia, kultura eta josteta arloko jarduerak gara daitezzen sustatuko du.

3. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakaskuntza lerro elebidunak jarriko ditu irakasle-ikasketetan, euskarazko irakaskuntzarako beharrezkoak diren tituludunei prestakuntza egozia eskaintzeko.

4. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskarazko irakaskuntza ofizialak emanen ditu Euskal Filologiako titulazioan.

5. artikulua. Irakasleak, ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuak langileak kontratatzeke, euskaraz jakitea nahitaezkoa izanen duen haien ehuneko bat finkatuko da, euskarazko irakaskuntza eta ikerketaren eta euskararen erabileraren esparruan egon daitezkeen eta lege honetatik erator daitezkeen beharrezko erantzutearren.”

Zioak: Bermea ematea euskaraz ikasi ahal izan daitezkeen bai enborreko irakasgaiak, bai aukerakoak bai eta hautaketa librekoak ere, baldin eta, gaztelaniarako erabiltzen diren irizpide

berei jarraituz, behar adinako eskaria baldin badago.

Euskaraz egin daitezkeen titulu berekiak garatzea eta euskarazko ikerketa eta jarduera kulturen garapena sustatzea.

Gure ustez, irakasle-ikasketen eskaintzak ikasleentzako eskariaren arabera izan behar du, eta ez hezkuntza-sistemak beharra izatearen edo ez izatearen arabera.

Euskal Filologiako ikasketak egiteko aukera eskaintzea interes handikoa litzateke euskarazko eta euskarari buruzko ikerketa eta irakaskuntza sustatu eta hobetzearen ikuspegitik, eta gure ustez Nafarroak gaur egun duen beharizan handi bati erantzuten litzaioke.

Lege honek jasotzen dituen xedapenak abiarazteko, euskaraz dakiten irakasle, ikertzaile eta zerbitzuak langileak kontratatu behar dira.

14. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

III. titulua aldatzeko zuzenketa. Izenburua eta bertako bi artikulua ordeztea du xede. Honako testu hau izanen luke:

“III. titulua. Zerbitzu administratiboak.

7. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta foru lege honek indarra hartzen duenean dauden edo gero batean sortzen diren goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastegi publikoak ematen dituzten zerbitzu administratiboetan eta irakaskuntzaz bestekoetan, euskararen erabilerak Nafarroako Unibertsitate Publikoko gaur egungo estatutuak jasotako xedapenak arautuko dute.”

Zioak: Estatutu horiek gaztelania eta euskara erabiltzeko buruzko zenbait eskubide ezartzen dituzte, unibertsitateko erkidegoaren hizkuntza-erabilerak bermatzen dituztenak; izan ere, besteak beste, ezartzen dute “...gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea, eta... inor ez da bereiztua izango”, eta bermatzen dute “euskara eta gaztelania batera erabil daitezkeen... ondokoei: barru eta kanpoko erabilerako administrazio-erabilerak,…”.

19. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen luke.

10. artikulua. (Sinatzen duenak aurkezturiko zuzenketa guztien logika jarraikiz, 8. artikulua) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta oraingo edo gero bateko goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastegi publikoen irudi korporatibo eta instituzionala erabiltzeari dagokionez eta zentro horiek herritarrei ematen dieten zerbitzuari dagokionez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren gaur egungo estatutuek xedatzen dutena izanen da arau.”

Zioak: Estatutu horiek gaztelania eta euskara erabiltzeari buruzko zenbait eskubide ezartzen dituzte, unibertsitateko erkidegoaren hizkuntza-eskubideak bermatzen dituztenak; izan ere, besteak beste, ezartzen dute “...gaztelania eta euskara erabiltzeko eskubidea, eta... inor ez da bereiztua izango”, eta bermatzen dute “euskara eta gaztelania batera erabil daitezten... ondokoe-tan: barru eta kanpoko erabilerako administrazio-agirietan,...”.

22. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposatutako testu artikuludunear jasota dago.

28. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
 ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Zioen adierazpen guztia, azken lerrokada izan ezik, ordeztea, honako testu honekin:

“Zioen azalpena

Erkidego baten hizkuntza eskubideak giza eskubideen funtsezko osagai dira, Aniztasun kulturalari buruzko Adierazpen Unibertsalak baieztatzen duen bezalaxe. Hizkuntza eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalak (Bartzelona, 1996ko

ekainaren 6a) 3.2 artikuluan herritarren hizkuntza eskubideak zehazten ditu.

1. Norberaren hizkuntzaren eta kulturaren irakaskuntza izateko eskubidea.

2. Kultur zerbitzuak izateko eskubidea.

3. Erakunde ofizialetan eta harreman sozioekonomikoetan norberaren hizkuntzan hartua izateko eskubidea.

Goi mailako irakaskuntzan euskararen erabile-ra arautzea oso da garrantzitsua hizkuntza hori berreskuratu eta normalizatzeko. Lanbide-jardue-ra gure erkideko edozein eskualdetan gauzatzeko gai lirartekeen profesional kualifikatuak prestatu beharko lituzke unibertsitateak, eta beste erkidego batzuetako profesionalekin lehiazteko gai lirartekeenak.

Euskarak egun NUPen duen egoera ez dator bat unibertsitateko ikasleen benetako eskariarekin, ezta Nafarroako herritarren benetako eskariarekin. Zenbait inkestatan eta matrikulazio datuetan ikusi ahal izan da erkidego honetako herritarrek zer interesa duten euskara gorde dadin.

Badira bi datu funtsezko: ikasle edo herritarren artean eginiko inkestak batetik, eta, bestetik, unibertsitatearen aurreko mailetan euskarazko ereduek dituzten matrikulazio-datuak. Bi kasuetan, ehunekoak txikiak izan daitezke, baina etengabe ari dira gora egiten azken urteotan. Horrela, 1999an, NUPeko Gizarte Kontseiluak berak eginiko galdeketa batean –IKEI enpresaren bidez egin zuen–, nafarren ehuneko 70ek adierazi zuen ezen NUPen euskara bultzatzearen alde zegoela. Egundun unibertsitatearen beraren datuen arabera–, matrikulatutako ikasleen ehuneko 18k euskaraz daki, eta, datozen urteetan, datu horrek gora egin lezake; izan ere, 3 urteko ikasle nafarren ia ehuneko 30 ari da D ereduaren ikasten. Begi-bistakoa da goizago edo beranduago NUPek ikasle horiek ate-joka izanen dituela.

Aipatzekoa da, garrantzitsua baita, proiektu honekin euskarazko hezkuntza-prozesua eteten ari zaiola geroz eta ehuneko handiagoa egiten duen ikasle multzo bati; ikasleok, unibertsitate-terterean, euskarazko ikasketak egin ezinik gertatzen dira, eta, horren ondorioz, haiek aukera hori eskaintzen duten gure inguruko beste unibertsitate batzuetara irtetea gerta daiteke eta gertatzen ari da, edo, bestela, euskarazko ikasketak bertan behera uztea. Estatuko unibertsitateak ahalik eta ikasle gehien erakartzeko lehian hasi dira, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, ordea, atearik

ixten dizkie bere "bezero" izan daitezkeenetako batzuei.

Halaber, gerta dakiguke, ez bazaigu dagoeneko gertatu, tekniko edo profesional gutxi dugula euskaraz prestatua, Euskal Autonomia Erkidegoan ikasitakoak izan ezik, euskara jakitea beharrezkoa edo egokiagoa den lanpostuak betetzeko. Egoera horrek, duda gabe, lehiakortasuna kenduko digu; izan ere, goi mailako irakaskuntzaren helburu nagusietako bat da lan merkatua hornitzea hark eskatutako pertsona kualifikatuez.

Euskarari buruzko legeak, nafar guztientzako legea baita, eta unibertsitateko Estatutuek, 6, 102 eta 103. artikuluek hain zuzen, berariaz aitortzen diote unibertsitateko komunitateari gaztelania eta euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. 103. artikuluek eskubide hori zehaztu egiten du, hizkuntza normalizazioaren arloko jarduketaren orontzat jarraibideak ezarri, eta hizkuntza biak erabiltzeko eskubidea aitortzen du.

Irakaskuntzan euskararen erabilera arauturik ez dagoela dioten argudioei kontrajarririk, 6, 102 eta 103. artikuluek berariaz aitortzen diote unibertsitate-erkidegoari gaztelania eta euskara ezagutu eta erabiltzeko eskubidea. 103. artikuluek eskubide hori zehaztu egiten du, hizkuntza normalizazioaren arloko jarduketaren orontzat jarraibideak ezarri, eta hizkuntza biak erabiltzeko eskubidea aitortzen du.

Goi mailako eta unibertsitate mailako irakaskuntzan euskararen erabilera arauturik gabe dagoela dioten argudioei kontrajarririk, ohartarazi behar dugu ezen, gure ustez, hori ez datorrela bat Foru Komunitateko araudiaren errealitatearekin; izan ere, 68/1995 Foru Dekretuak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuak berretsi zituen, eta haietan arautu egiten da euskararen erabilera NUPen.

Hala ere, komenigarria dirudi Nafarroako Parlamentuak erantzuna ematea Foru Komunitatean euskarazko goi mailako ikasketak egiteko dagoen eskariarekiko izan den jokabide ustez arretagabeari, eta horrela herritarren hizkuntza eskubideak berma ditzala, goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautuz."

Zioak: Zioen adierazpena proposatzen den artikulua-aldaketarekin bat etorraraztea.

IRIZPENA

Ponentziaren txostena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak arautu zituen, gizarte-beharrizangatik eta Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak hala agintzen zuelako, euskararen erabilera normala eta ofiziala gizarte-bizikidetasunaren eta irakaskuntzaren esparruetan. Arlo honetan, legegileak ez zuen egokitzen jo euskararen erabilera arautzea Nafarroako Foru Komunitatean garai hartan ematen ziren unibertsitate-ikasketarako.

Geroago, apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeak Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortu zuen eta horretan ere ez zen aipamen bakarra ere egin unibertsitate berrian euskarak izan zuten erabilerrari buruz. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilua eratzeko abenduaren 9ko 20/1994 Foru Legean ere ez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek, zeinak martxoaren 13ko 68/1995 Foru Dekretuaren bitartez onetsi baitziren, euskarari buruzko xedapen batzuk badauzkate, baina ezin dira behar adinako legezko xedapentzat jo Nafarroako Unibertsitate Publikoko euskarazko irakaskuntzari dagokionez. Horregatik, esan daiteke arlo honetan lege-hutsune bat dagoela, eta horrek ziurgabetasun juridikoko egoera bat sortzen duela hizkuntzaren arloan, zeinak hainbestearainoko eragina baitauka Nafarroako gizartean.

Horregatik, bada, komeni da Nafarroako Parlamentuak gai honetan sortu den egoerari konponbidea ematea, betiere Foru Komunitateko egoera soziolinguistikoari kasu eginda, arautua egon dadin euskararen irakaskuntza eta erabilera goi mailako irakaskuntzan, unibertsitate publikoari dagokionez eta, bestetik, unibertsitate-administratibio publikoari dagokionez.

Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilerraren araubide hau ezartzen da Foru Komunitateak hizkuntza-gaietan duen eskumenaren esparru zorrotzetik, unibertsitate irakaskuntzaren arloa ukitu gabe, horren araubidea Estatuari eta, kasua

bada, unibertsitateei, euren autonomia dela-eta, baitagokie.

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Foru lege honen xedea da euskarazko irakaskuntzak eta euskararen erabilera arautzea Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

2. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko irakaskuntza arautuko dute foru lege honek, foru lege hau garatzen duten arauak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko estatutuek.

3. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskararen erabilera arautuko dute foru lege honek, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko Atariko tituluak eta I. tituluak eta horiek garatzeko arauak, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko estatutuek.

II. TITULUA **Irakaskuntza**

4. artikulua. (Bazter utzia).

5. artikulua. (Bazter utzia).

6. artikulua. (Bazter utzia).

7. artikulua. (Bazter utzia).

III. TITULUA **Euskararen erabilera administrazio zerbizuetan**

8. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan administrazio zerbizuetan nahiz irakaskuntzaz bestekoetan, euskararen erabilera arautuko dute gai hori Nafarroako gainerako administrazio publikoetarako oro har arautzen duten xedapenek.

9. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoan hartu beharreko neurriak hartuko ditu helburu horiek arian-arian lortzearen.

IV. TITULUA **Irudi korporatiboa**

10. artikulua. Arestiko tituluko xedapen berberak aplikatuko zaizkie Nafarroako Unibertsitate Publikoan irudi korporatibo eta instituzionala erabiltzeari eta hark herritarrei erantzuteko dituen zerbizuei.

Xedapen gehigarriak

Xedapen gehigarria. Aurreko artikuluetan aipatutako aginduak berdin aplikatzekoak zaizkie gaur egun dauden goi mailako eta unibertsitateko irakaskuntzako ikastetxe publikoei eta unibertsitate ikastetxeak sortu edo aitortzeko eta goi mailako ikasketen ezarpena baimentzeko xedapen indardunen babesean Nafarroako Foru Komunitatean sor edo ezar daitezkeenei.

Xedapen indargabetzaileak

Xedapen indargabetzailea. Foru lege honen aurka doazen xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege honetan xedatutakoa aplikatu, garatu eta beteazterako behar diren erregelamendu xedapenak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Lege proposamena, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina aldatzeko Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko martxoaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua aldatzeko zuzenketa. 174.4 artikulua edukia ondokoa dion beste batekin ordeztzea:

“Alargun pentsioen oinarri arautzailea % 70ekoa izanen da.”

Zioak: Zenbait autonomia erkidegotako alargun pentsioak berdintzearen aldeko plataformek herri ekimen legegilea igorri zuten Diputatuen Kongresura. Zuzenketa honen bidez, lege proposamena egokitu egin nahi da ekimen hartan jasotakora, ekimen hartan alargun pentsioa sorrarazten duen oinarri arautzailearen ehunekora hain zuzen.

2. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua aldatzeko zuzenketa.

174.5 artikulua edukia ondokoa dion beste batekin ordeztzea:

“a) Gizarte babes publikoaren sisteman prestazio osagarria izateko eskubidea ezartzen da, baldin eta alargun pentsioak ez badu hilean 600 euroko kopurua gainditzen, kapital nahiz lan errenten bidez lortutako besteren dirusarreraren mugak kontuan hartu eta gero.

b) Urtero, urtarrilaren 1ean alargun pentsiorako ezarritako gutxieneko zenbatekoa gaurkotu egingen da, aurreko urteko KPlaren igoera kontuan hartuta.

Zioak: Zenbait autonomia erkidegotako alargun pentsioak berdintzearen aldeko plataformek herri ekimen legegilea igorri zuten Diputatuen Kongresura. Zuzenketa honen bidez, lege proposamena egokitu egin nahi da ekimen hartan jasotakora.

3. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua kentzeko zuzenketa. Hamalagurren xedapen iragankorra bis kentzea.

Zioak: Eginiko aldaketekin, xedapen iragankorrak ez du zentzurik, igoera mailakatua proposatzen baitzuen. Nahikoa da azken xedapena.

4. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. II. atala aldatzea, non alargun pentsioen zenbatekoa ezartzen baita; % 55ekoa izanen dela ezarri ordez, hau jartzea:

“... alargun pentsioen ehunekoak gaur egungo mugetatik goiti egitea, oinarri arautzailearen % 70era bitarte...”

Zioak: Zenbait autonomia erkidegotako alargun pentsioak berdintzearen aldeko plataformek herri ekimen legegilea igorri zuten Diputatuen Kongresura. Zuzenketa honen bidez, lege proposamena egokitu egin nahi da ekimen hartan jasotakora, ekimen hartan alargun pentsioa sorrarazten duen oinarri arautzailearen ehunekora hain zuzen.

5. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. II. atala aldatzea, non alargun pentsioen zenbatekoa ezartzen baita; “lanbide arteko gutxieneko soldata” jarri ordez, hau jartzea:

“...ezin izanen da hileko 600 euroren azpitik geratu...”

Zioak: Zenbait autonomia erkidegotako alargun pentsioak berdintzearen aldeko plataformek herri ekimen legegilea igorri zuten Diputatuen Kongresura. Zuzenketa honen bidez, lege proposamena egokitu egin nahi da ekimen hartan jasotakora, ekimen hartan gutxieneko gisa ezarritakora hain zuzen.

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena

IRAKURKETA BAKARREAN TRAMITATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2003ko martxoaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen eta 2003ko otsailaren 27ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan eta azken xedapenetan lehendabizikoan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:


1. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 171 eta 98.2 artikulua aldatzeko proposamenaren biderapena zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko martxoaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	